



III.

ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK



7

TOKIKO HEDABIDEEK ETORKIZUN HANDIA DUTE

Iban Arantzabal Arrieta

Goienako Ikus-entzunezkoen zuzendaria

Helbide elektronikoa: iarantzabal@goiena.com

Badira Tokiko hedabideak Euskal Herrian. Askotan marka bera ez izanagatik difuminatuago dagoen errealitate bat irudika lezake norbaitek, baina paperean batez ere, irratan zerbait, Interneten gero eta gehiago eta etorkizunean telebistan indarra egiteko asmoz daude euskara hutsez jarduten duten hainbat hedabide. Errealitate bat bada, eta neurtzen zail den errealitatea izanagatik berebiziko garrantzia duen esparrua dela ezin ukatu. Gero eta gehiago dira hedabideetako bat bakarrik lantzetik bat baino gehiago lantzerantz egin dutenak eta sarri agertzen den *multimedia* berba bere egin dutenak. Paperean hasi eta Interneten ere pausoak ematen dihardutenak ez dira gutxi eta bagara papera, irratia, Internet eta telebista lantzen ditugunak ere. Horixe da Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibaren kasua eta eza gutza handiena dudak komunikazio taldea izanik oinarri hartuta egingo ditut hainbat hausnarketa. Idatzi honetan **hedabideen nolakotasuna**, **Interneten garrantzia** eta **hurbiltasunak** berez dakarren erakargarritasuna izango ditut mintzagai. Hiru puntu horietara errendituko naiz tokiko hedabideen garrantzia azpimarratzeko. Azpimarratzeko, pertsona eta entitateen arteko komunikazio-beharrak asetzeko balio dutela tokikoek eta baita aisia, kultura eta prestakuntzarako bideak eskaintzeko ere, euskaraz, elkarlanean oinarriturik eta era guztietako euskarri komunikatiboez baliatuz.

GERO ETA AUTOFINANTZATUAGO, GERO ETA ASKEAGO

Nork bere herriko proiektuari eustea ulertzekoa da, baina eskubidetzat aldarrikatzeraino eustea diru-laguntzak lortzeko... Ez da nahikoa eskubidea dugula esate hutsa, gero eta konpetitiboagoak behar dute izan sortutako egiturek. Gure egiturak egon behar du ahalik eta hurbilenekoenera lotua, baina horri ere neurria hartuz. Oso interesagarria da antzerako garenon hainbat proiekturen arteko elkarlana eta hortik sor daitekeen egitura sendoago eta indartsuagoa autofinantzazioan efikazagoak izateko. Atomizatu egia badago bestela ere Euskal Herriko hedabideen panorama (ere) eta batzera egin behar dugula iruditzen zait. Denok bakarra osatze-
ra? Ez. Denok editorial bakarraren menpe egotera? Ezta pentsatu ere!

Eskualdekako egiturak emango digu kolore aniztasuna, egiteko modu ezberdinak, izaera ezberdinak... eskualde bakoitzari egokituago legokeen egitura. Autofinantzazioari begira ere badirudi herri mailako proiektuak baino eraginkorragoak direla eskualdekakoak: batetik, produktuak berezko dituen baliabideen aldetik; bestetik, publizitatea lantzeko bide moduan.

Gure erronkak izan behar du gaur baino autofinantzatuagoa izatea bihar. Hori bai, ezin ahaztu euskaraz jarduteak berezko mugak dituela eta hori lagundu beharra ez da inolaz zalantzan jartzen. Baina beti egon behar dugu emango dizkiguten ogi pusken *menpe*? Normalizazioan aurrera egin ahala egin behar dugu guk ere autofinantzazioan. Euskararen erabilerari buruzko datuek diotenez, erabilerari trinkoa egiten dutenak %18 dira EAEn, %10,3 Iparraldean eta %5,6 Nafarroan. Horrez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %11 dira EAEn, %12,3 Iparraldean eta %4,1 Nafarroan. Ezagutzak ez ezik erabilerak ere gora egin du, eremu formaletan batez ere, eta gure egituren autofinantzazioari ere eskatu behar diogu gora egitea, askeago izatea.

KOMUNITATEAK OSATU BEHAR DIRA

Goienan dugu teoriaren aplikazioa. Herrikako hainbat proiektu batu (9 herri eta 9 elkarte) eta lehendik zeuden aldizkari zein telebistekin bakar-
ra osatu. Kooperatiba horretan euskara elkarteei gehiengoa aitortu eta estatutuetan jaso bestelako bazkideak izateko posibilitatea. Enpresari tira egingo dioten jabe egin langileak (lan-bazkideak) eta baita bazkide bihurtu gura duten udalak ere. Ateak zabalik bestelako entitateen batek ere bazkide izan gura balu. Enpresa egitura honekin kooperatibagintzak dituen onura guztiak aprobetxatzeaz gain eragile ezberdinak jartzen dira helburu adostuak lortzeko ahaleginean. Garrantzi handia hartzen du enpresa berri honetan eragile ezberdinak izatea enpresaren nondik norakoa erabakitzen dutenak. Dударik ez, oreka informatiboa ere bermatua-
goa dago, betiere gure bezeroen, irakurle-entzule-ikusleen mesedetan.

Ez da nahikoa eskubidea dugula esate hutsa, gero eta konpetitiboagoak behar dute izan sortutako egiturek.

**Gure erronkak izan behar
du gaur baino
autofinantzatuagoa
izatea bihar.**

Eta ez al da posible txanpinoiak letxe sortzea hainbat Goiena? Debabarrenean sor daiteke Goiena bat hango eragileek gidatua, hango eragileek osatua eta hango eragileek gura luketen moduan? Eta sor daiteke Bortzirietan? Zergatik ez da ba sortuko horrelakorik Durangaldean? Egia da eskualde bakoitzak berezitasunak dituela, baina ez dago beharrik formula sekretuen bila jarduteko. Debagoienean posible dena posible da gainontzeko eskualdeetan ere; hori bai, bertako eragileek dakite ondoen zelan egin beharko litzatekeen aurrera. Dauden proiektu komunikatiboak elkarlanean hasteak denen onurarako izan beharko luke. Esperientzia testatua dago eta zertan makalago eta zertan errazago ibili ginen idatzita geratu da. Sarean duzu "Goiena esperientzia" deitzen den txostena. Oraindik ere hasiera haiek balio dute egitura sendoagoa sortzeko gogoz daudenendako.

Egia da orduko Goienak eta gaurkoak zerikusi handirik ez dutela, 8 urtek ikasteko aukera ematen dute eta enpresa moduan hazteko aukera ere bai. Hazteko, baina, denbora eta dirua inbertitu behar da eta herriz herriko proiektuekin jarraituko bagenu ez ginatke haziko, eguneroko zurrunbiloak jango gintuzke eta nahikoa izango genuke gure produktuak astero kalera ateratzearekin, askori eta askori orain gertatzen zaien moduan. Orain, esaterako, berrikuntzan egin dezakegu inbertsioa eta gainera uste dugu inbertsio hauek berebiziko garrantzia dutela. Paperezko agerkariaren banaketa profesionalizatzen ari gara, teknologia berrietan informazio hutsa ez diren proiektuetan inbertitzen dihardugu, orain urteroko kudeaketa planak, plan estrategikoak eta abarrekoak egiten ditugu enpresa osatzen dugun eragile guztion artean... Honek guztiak eragiten du hazkundera ez etetea. Egingo genuke horrelakorik herriko proiektuak bagenitu eskualdekoei muzin eginda? Enpresa sendoak behar ditugu.

Eta administrazioak bultzatu beharko luke eskualdeko proiektuak sortzea? Ba, egia esan, diru-laguntzak emaitzekin lotzearen aldekoa naiz eta irakurle-entzule-ikusle kopurua aintzat hartu beharra dagoela uste dut. Administrazioak pausoa emango balu sektorea ere berrantolatu egin beharko litzateke. Oso gertutik ezagutu dut nik herri txiki batean agerkari bat izatea zer den, zein burukomin sortzen dituen eta zein militantzia gradu behar duen horrelako proiektu batek aurrera ateratzeko. 1.000 biztanleko herri batendako hilabetekari bat genuen orain 8 urte. Posible zen egitea eta urtetan egin genuen *Goibekokale* deitzen zen agerkaria. Posible zen, baina ez modu profesionalean, ez lan-profesional moduan hartuta, ez soldata duinekin, ez behar den kalitate irizpideekin... Denon diruak administratu behar dituenak argi izan beharko luke hilabetean behin 1.000 edo 15.000 biztanleko herri batendako agerkari bat den lagundu beharrekoa edo agerkari hori proiektu sendoago baten parte izateko lagundu behar duen, agerkari hori proiektu komunikatibo oso egiteko lagundu behar duen. Herri aldizkariak bihurtu beharko genituzke eskualdeko aldizkari eta are argiagoa dirudi herri telebisten kasuak (lizentziek derrigortuko dutena, zorionez). Gaur, ez dago lekurik herri-

telebistendako eta legea egin behar izan da horretarako, erkidegoa eskualdeetan banatuz. Ez dakit legerik behar den aldizkariekin ere antzera jokatzeko, baina administrazioak eragingo balu eta erakargarri bihurtu urrats hori ematea?

Eskualdeko proiektuetan ez da galtzen herri informazioarendako lekurik eta orri kopuruan, emisio orduetan, atari osatuagoetan... espazioak irabazten dira. Informazioan irabazten da ze inguruko herrietako zinema aretoetan zer dagoen, ondoko herriko jaietako egitaraua zein den, hamar kilometroren barruan daukazun herrian zer gertatzen den, zein den kultura ekitaldien agenda... Irabazi, irabazi egiten da eta ez agenda erako informazioan bakarrik, gure herri ingurukoak ere interesgarriak dira beti, pertsonak ezagunago egiten zaizkigu, iritzi emaileak gertukoak dira: tokikoa da. Herrialdeko edo nazio mailako agerkariei urrun geratzen zaizkien albiste asko geratzen dira eskualdeko egiturek lantzeko moduan edo telebista publiko nazionalari urrun geratzen zaion milaka albiste garrantzitsuk lekua dute eskualdeetako telebistetan. Eta ez lekua bakarrik, lekua izateaz gain ikusi ere ikusten dira CIESen datuei erreparatzen badiegu, behinik behin.

Eskualdeko proiektuetan ez da galtzen herri informazioarendako lekurik eta orri kopuruan, emisio orduetan, atari osatuagoetan... espazioak irabazten dira.

KOMUNITATEAK EDUKI EKOLOGIAGATIK

Eduki ekologiagatik ere sortu beharko lirateke enpresa sendoak. Hedabide bat baino gehiago bere gain hartuko lituzketen egiturak. Denbora eta dirua galtzen dihardugu multimedia funtzionamendua praktikan jartzea atzeratzeagatik. Albiste bakarra hedabide ezberdinetan ematen asmatu behar dugu. Behin informazioa jaso eta ahalik eta bide gehienetatik zabaldu. Euskal Herrian ez dago oraindik funtzionamendu hau ehuneko ehunean martxan jarri duenik, baina ez dut zalantzarik denbora kontua dela. Goienan hasiak gara kazetari multimediekin lanean. Goienako kazetariak kapazak dira gaur egun edozein prentsaurrekotara kazetari bakarra joan eta telebistarako albiste bat bakarrik egin barik papererako albiste, Internetarako eta irratirako ere egiteko. Edukia bat da eta lau mediotan zabaltzen da eduki hori. Irismena biderkatu egiten da eta edukia hobeto lantzeko aukera dago. Zailagoa da bi albitez edo hiruz egunero jabetu eta zukua ateratzea, bakarra landu eta hori berori hainbat hedabidetan ematea baino. Antolaketa da aldatzen dena eta aldatzea merezi duena.

Honek, noski, ez du esan gura informazioa era berean tratatu behar denik edozein mediotan. Medio bakoitzak bere hizkuntza du, titularrak egiteko modu ezberdina, sarrerak lantzeko modu ezberdina, argazkien tratamendu ezberdina... Esaterako, ondo asko azalduta irakurri dugu Interneteko sarrerak zelan idatzi behar diren *Jakinen* bertan, Joxe Aranzabalen eskutik. Gakoa da kazetariari formazioa ematea, unibertsitateetan jasotzen ez duten formazioa. Irakatsi Quark erabiltzen, Interneten editatzen eta argazki kamera zein bideokamera erabiltzen. Inoiz entzun dugu

Gaietan adituak behar ditugu eta ez horrenbeste hedabide jakin bat eta bakarrean lana egiteko baino balio ez duen kazetaria.

oso modu despektiboan emakume edo gizon orkestra izan behar dela gaurko kazetaria, baina iritziz hau dutenak ez dakit konturatu diren gainontzeko herrialdeetan norantz doan kazetarien jarduna. Gure buruari egin behar diogun galdera hau da: etxe beretik prentsaurreko bat jasotzera lau kazetari joan behar dute? Hori EITBk egin ahal izango du eta irratitik bat, telebistatik bi edo hiru, Radio Euskaditik beste bat, beste bat bulegoan Interneten albiste horiek sartzeko, eta paperean ere argitaratu behar balu beste pare bat lagun... Nik ez dakit EITBren funtzionamendua zein den eta ezin esan ezer, baina tokiko hedabideotan haginak estutzera ohituta gaude eta behin mugituz gero hedabide bat baino gehiagorako eduki hori aprobeztatzea ezinbestekoa da. Ez da lan handiagoa informazioa lantzen dutenendako, antolaketan dago giltza.

Zer da errazagoa, argazkiak atera eta bideoan grabatzen ikastea edo kazetari bakarrak medio bakarerrako jardun izanagatik hamarnaka gai kontrolatzea? Hau da, helburua litzateke kazetariak ez izatea mugarik tresneria aldetik, baina hurrengo urratsa izan behar da kazetaria gaietan berezitzearena. Albisteak behar duen sakontasunarekin eta seriotasunarekin tratatua izateko erredakzio guztiko kazetari guztiak ekonomiaz jantzi-ta egotea errazagoa da lau medioetan jarduteko ikasia egotea baino? Eta gaur ekonomiaz, bihar politikaz, etzi udal jardueraz, etzidamu ekologiaz... Helburua litzateke lau medioak dominatzea heltzea eta gaietan berezitzea ondoren. Erredakzioak sortu behar dira edukien antolaketa ardatz izanda eta ez hedabideka. Gaietan adituak behar ditugu eta ez horrenbeste hedabide jakin bat eta bakarrean lana egiteko baino balio ez duen kazetaria. Nago, konturatu direla unibertsitatearen batzuk eta ahaleginak horretara bideratzen ari direla. Gertuenen dudan unibertsitatean ez dago ikaslerik blog bat ez duenik, praktikak telebistan egiten dituzte, irratia bat dute unibertsitatean... Ikasleek jakin behar dute hedabideetan tresnak erabili beharko dituztela inporta barik papererako, telebistarako edo Internetarako den. Lau hedabideetako hizkuntzak ikasi beharko dituzte. Ez litzateke aurkezpen txarra ikasketak amaitu eta lana topatzerakoan ikasle horrek egiten dakiena norbere blogean erakustea. A4 batean emandako Curriculumak beste balioko luke, behinik behin eta zenbait enpresatan balio erantsia izango luke blogaren helbidea emateak. Geratzen zaigun lana da kazetari hori kirolean, edo kulturaren, edo ekonomian... bakarrean aditu bihurtzea lau mediotarako aditu bakarra izan dadin.

Kazetari multimedia eta berezitua izango genuke. Tokikoetan falta zaizkigu kazetari berezituak eta hedabideen kalitaterako lagungarri lirerateki kiroletan aditua edo legelari izan barik ere gaia menperatzen duena lantaldeko partaide izatea. Besteak beste, kolaboratzaile sare bat osatzeko ere baliagarria izango litzateke eta edozein albisteren aurrean hainbat adituren iritzia izango genuke informazio hutsaren osagarri, edo gutxienez gertatutakoa hobeto ulertzeko lagungarri. Kazetari multimedia etorkizuna dela esaten dugu, baina derrigor lotu behar da ondoren kazetari espezializatua izatearekin.

KOMUNIKAZIOAREN ARDATZA INTERNET IZANGO DA, DAGOENeko EZ BADA

Ez da erraza izango txip aldaketa ze gaurko hedabideen panorama hedabide tradizioaletatik datorren jendearen agindupean dago; hala ere, etorkizuna Internet deitzen da. Telebista Internetez aukeratuko da, pape-reko biltegi da dagoeneko, baina biltegi huts baino askoz gehiago izan beharko da. Bat-bateko notizia emaile, hipertestualitatearen bermatzaile haratagoko irakurketak (baita ikus-entzutekoak) ahalbidetuz, informazioari blogetako iritziak gehituz, informazioa jaso ahal garatuz eta klik bakarrera jarritz, erantzuteko aukerak emanaz... Eta ezingo gara lo geratu. Jarri behar gara sare sozialetan pentsatzen, gure bezeroen balorea zein den aztertu eta elkarlana sustatzen, berdinen arteko interakzioa ahalbidetzen eta erreminten erabilera konpartitzen. Sare hauen efikazia landu beharko dugu hiru esparrutan: komunikazioan (blogekin, adibidez), komunitatea sortzen (blogak, harpidedunak, erosleak, klubak...) eta kooperazio proiektuekin (wikipedia ikusten dut gure moduko enpresek kolaborazioa eskaini dezaketen posibilitateetarako bat. Debagoiena atalak behar luke osatuago eta kazetariak kolaborazio irizpideekin jardutea ere lortzeko dagoen puntua da). Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da bakoitzak gura duen moduko informazioa jaso ahal izatea eta horretarako tresnarik eraginkorrena Internet da. Baina informazioa jaso bakarrik? Irakurleak eragile izan gura duen denborak bizi ditugu. Informazioa eman eta eman egitearekin konformatu gara urtetan, filtratu egin da informazio guzti-guztia eta gure irakurketak egitea ondo badago ere irakurketa anitzetara ohitu beharko gara. Informazioa guk emateaz gain etorri egingo da eta Internetek zerbait bultzatuko badu informazio hori edozeinek komunikatu ahal izatea bultzatuko du. Egoera berrietara ohi-tzen joan beharko gara, gainean ditugun sare sozialek eskatzen dute harreta berezia. Euskal Herrian hain errotuta egon den auzolanaren pareko-edo ikusten ditut eta euskaldunok badugu zeresanik Interneteko auzolanean ere.

Tokiko hedabideok jakin behar dugu erabiltzaile bakoitzaren irakur-gaietako bat izaten; hau da, dituen informazio guneak asko izango dira eta guri dagokigu horien artean gurea egotea. Gaur egun feed bidez irakurtzen dugu Interneten eta gero eta jokabide zabalduagoa da. Horrela irakurriko dute gu baino gazteagoek eta beraien feed irakurgailuetako bat izatea izan behar da gure erronka. Tokian tokiko erabiltzaile horri bere inguruko berriak interesgarri egiten asmatu behar dugu, bideoekin laguntzen, mp3ekin, podcast-ekin, grafikoekin, lotura mordo batekin... Gure irakurlea ere, klik bakarrarekin zer irakurri aukeratuko duen irakurlea izango da eta gure eginbeharra da aukera horietako bat izatea.

Honetarako guztirako kazetari prestatuagoak beharko ditugu uni-bertsitateetatik, baina unibertsitateetan ere birziklatu beharko dira ira-

Derrigortuta gaude gazteagoei eduki ona eskaintzera eta orri ikusien artean euskara ere egotera.

***Askorentzat astakeria
izango dena nik ontzat
ematen dut eta
animatuko nituzke
eskualde guztietako
gazteak blogak sortzera
eta euskaraz jardutera.***

kasleak. Alferrik da, hala ere, unibertsitatetik lan mundura salto egin eta kartolak jantzita dituen zuzendariak badaude hedabideetan. Internetik ez zeneko jokabide eta jarrerak ez dute lekurik komunikazioan eta gutxiago gazte euskaldunak gure sarean harrapatu gura baditugu. Hedabideotako zuzendariok ere birziklatu behar dugu, etenbariko ikasketan jardun. Gazteagoak gutxienez hiru hizkuntzarekin datoz eta guk eman behar dieguna euskaraz izateaz gain izan behar du kalitatekoa, hurbilekoa, bizkorra, bizia, multimedia... Gure hartzaileak ez dira Internet ez zegoenean hazitakoak, ordenagailu batekin datoz besapean, denetik egin dezakeen eskuko telefono batekin. Badugu lana tokiko hedabide zein zabalera handiagora dedikatzen direnek herdoila kendu eta buru askeagoekin funtzionatzeko. Derrigortuta gaude gazteagoei eduki ona eskaintzera eta orri ikusien artean euskara ere egotera. Gure alde dugu 16 eta 24 urte bitarteko gazte gehiago ditugula euskaldunak. Gazte elebidun horien erdia baino gehiago (%54,5) euskaldun berria da eta egin beharko dugu edukia euskaldun multzo horri zuzendutakoa ere.

Tokiko hedabideok euskaraz eskaintzen jarraitzen badugu eta inor baino hobeto egiten jarraitu, gu izango gara gazte horiendako erreferente. Zailagoa dute, itxura baten, hedabide generalistek, kompetentzia klik bakarrera dago. Non jasotzen du erabiltzaileak Georgia eta Errusiaren arteko gatazkaren berri? Ahalegin handia egiten da gure irrati-telebista eta paper edizioetatik han gertatzen dena jarraitzeko, korrespontsalak bidaltzen ditugu, kamerak, teknikariak... eta konturatzen gara klik bakarrera dagoen *russiatoday.com* webgunean jarraitzen dituztela hango gertakariak ingelesez. Begiratu besterik ez dago zein den webgune horren audientzia (<http://www.russiatoday.com/audience>).

Hurbiltasunak tokikoon alde egiten du mugarik ezagutzen ez duten web bidezko informazio guneetan ere. Gazte horiek gure sarean harrapatzea gure esku dago eta erronka handia dugu bistan. Ez da nahikoa izango gertatzen dena narratze hutsa, gerturatu beharko dugu eta Euskal Herritik egindako irakurketa bat gehitu gehienez jota eta ahal delarik eskualdetik egindako irakurketa bada hobeto. Gertutasuna eta hurbiltasuna dira mahatsa. Narrazio hutsei gehitu beharko diegu blogetako iritzia, wikipediak dioena Georgiaz, mapak gehitu... Internet izango da informazio osatuena emateko gunea eta Interneten argitaratuko da edozein gertakari bizkorren. Ia gertatu ahala argitaratuko da eta argitaratutakoa garatzen joan jasotzen den heinean. Interneten jasoko da informazio gehien eta horren hustuketa izango da gero telebistan ikusiko duguna edo papereko edizioetan irakurri ahal izango duguna. Internet da informazioaren ardatza gaur egun ere, baina konpontzeko dagoena negozio eredu da. Oraindik ere paperak ematen ditu euroak eta... Handia da, hala ere, eurorik apenas ematen ez duen hedabidea izatea komunikazioaren ardatza. Halaxe da.

HURBILEKOA: AFEKTIBOA, EFEKTIBOA

Familia euskaldun eta ia euskaldun guztietara heltzeko bidea da gertutasuna. Erabakigarria izan behar du produktua (papera, Internet, irratia, telebista...) norberarena sentitzeak, gertukoa, feedback-erako aukera ematen duena, korrespontsalak ezagutzeraino hel daitekeena, jakineko pertsonak egina, jakineko elkarteak dituen atzean, herriak errepresentatuta sentitzen diren hedabideak...

Adibide batekin adierazita: paperezko produktu bat norbere buzoian jasoko genukeena, eskualdeko berriekin osatutako azal bat, eskualdeko 32 orriko edukiz jantzitako eta hurbilekoek kudeatutako aldizkari bat (egunerokoa noizbait?) eta horren barruan, gehigarri bat bailitzan eta bere azal propioarekin, nazio mailako beste agerkari bat beste horrenbeste orriekin. Tokiko hedabide guztiok gure agerkarietan gustura sartuko genukeen euskara hutsezko agerkaria, asteari errepasoa egingo liokeena.

Berdin pentsa daiteke telebistako informatibo batekin, Interneteko atarian edukiek izan beharko luketen ordenarekin (preferentzia gertukoari), irratiko tartea egituratzean ere gertukoari eman garrantzia...

Bai, osagarri ona dirudi tokiko guztiok nazio mailako edukiz hornituko gaituen "sare" bat. Euskal Herri mailako informazioa banatuko lukeena, gero eskualde bakoitzean informazioa aukeratu eta eman ahal izateko. Eskualde bakoitzean, hango herriak zelakoak diren jakinda eta hango herritarren ikuskeratik emango lukete mundua ikusteko modu bat, eskualde horretatik irakurketa ezberdin bat aterako litzateke ezain gertakari tokiko betaurrekoek begiratzearen ondorio. Gertakaria bertaratu litzateke eta informazio bera modu ezberdinetan eman. Seguruenik, Zuiako koadrilan eta Goierrin total ezberdin.

Posible izateaz gain erakargarria dela uste dut, guk egiten ditugun hedabideak baino salgarriagoak egiten dituzten erdarazko medioen pare jarriko gintuzkeena. Izan ere, benetako erronka hor dago, guztiok ezagutzen ditugun erdarazko produktu horiek baino hobeak egitean.

Mikel Irizarrek "amaraun-antolaketa" deitzen dio darabildan ideia honi, eta dio: *Tribuari komeni zaio sarea irudikatzea amaraunaren antzera: erdigune bat, zirkuluak haren inguruan, eta hari luzeak erdigunetik lau haizetara. Amaraunaren erdigunean legoke bakoitzaren hurbilenekoa, interes nagusikoa; kanporanzko zirkuluetan, gero eta urrunago, interes gutxiagoko gaiak; eta hari luzeen bidez bermatuko litzateke mundu zabalarekiko harremana. Egin diezaiogun bakoitzak bere buruari ondoko galdera: "Zerk du eragin handiagoa nire bizitzan, atariko auzokide baten auto-istripuak, ala lurrikarak eraginda milaka kilometrotara gertatu den milaka indonesiarren heriotzak? Erantzun honen arabera informazioa mailakatuko duen amarauna behar du gure tribuak.*

Hurbilekoa izan behar da hizkuntza bera ere. Fernando Muniozgueren lagunak esaten zuen moduan: afektiboa efektiboa da. Goienan Tokiko Euskara Batua darabilgu gehienbat eta euskalkiak badu lekua gure

Tokiko telebistek badute merkatua eta tokiko telebistetan sinesten hasteko ordua ere heldu da.

medio guztietan. Kolaboratzaileek, esaterako, bidaltzen dituzte testuak euskalkian idatzita, kaleko inkesta gehienak jasotzen dira euskalkian eta horrela pasatu *Goienkaria*-ra... Ahozkoa da euskalkirako lekurik aproposena: batetik, irratan debagoiendarrekin egiten diren elkarrizketak herriko hizkeran egien dira; bestetik, telebistan makina bat adibide dira ahozkoak lekua hartzen duenaren adierazgarri: eztabaidak, kale-inkestak, erreportajeren bat... Gunerik libreena Internet da, hala ere. Gure blog komunitatean euskalkian ere idazten da eta badira euskalkian jarduten duten lagun-koadrilak. Sinestezina da koadrilok kalean erabiltzen duten hizkuntza nola ikus daitekeen idatzira ere pasatuta. Normalean ezer idatziko ez lukeen jendea animatzen da blogetan idaztera eta fenomeno honek merezi ditu minutu bi bai herriko hizkeretan zelan idazten den ikusteko eta baita blogetan idazten eroso sentitzen direla ikusteko beste inon ezer ere idatziko ez duen jendea izan arren. Merezi du fenomeno hau aztertzea. Euskaltzaindia oso urruneko entitate ikusten duten erabiltzaile asko daude blogetan. Komunikatzeko euskaraz dihardute hizkuntza ez akademikoa eta ikuspunturen batetik mordoiloa erabili arren. Blogak territorio libreago moduan ulertzen dira eta hizkuntzaren zuzentasuna baino aurrerago jartzen da koadrilakoeekin komunikatzeko beharra. Askorentzat astakeria izango dena nik ontzat ematen dut eta animatuko nituzke eskualde guztietako gazteak blogak sortzera eta euskaraz jardutera. Gazteak eta baita hedabideetan jarduten duten lagunak ere. Tresnak eman behar ditugu bueltan edukia lortzeko. Datorren edukia ez da izango nobelagintzan edo poesian erabiltzen den euskara mailakoa, baina nobelak inoiz idatziko ez dutenak ere idazten jartzeak asko balio du euskararendako. Erregistro berezi bat sortzeko ere balioko du eta eskuko telefonoekin sms berezietara ohitu garen moduan blogetan ere posible da erregistroa bestelakoa izatea zorioneko "h"-ak non jarri inporta barik.

Goienak, hala ere, tokiko euskara batua darabil bere hedabideetan, egokitasuna eta zuzentasuna aintzat hartuta eta "h"-ak bere lekuan jarrita, zelan ez. Urtebete dela egin genuen estilo liburua ere eta han jasota dago guk erabili beharreko euskara gure bezeroen gertukoa izan behar dela. Horrela, ezaugarri morfologiko, fonologiko lexiko eta abarrekoak kontuan hartzen dira idazterakoan. Tokiko euskara batua ez da hizkuntza berri bat, ez da euskalki berri bat, tokiko euskara batua da tokikoak diren ezaugarriez hornitzea euskara batua. "Apaiza" bezain euskara batu da "abadea" edo "gabe" bezain estandar "barik", edo "apar" bezain euskara batu da "bits". Testu honetan bertan ere ikusiko zuen irakurleak jardun-en adizki trinkoak erabiltzen ditudala edo destinatiboko *-endako* erabiltzen dudala nahiz eta Xuxenendako gorritz markatu beharrekoa den, labelik ez duelako-edo. Hein baten, debagoiendarrendako idaztea da helburua Goienan eta, Koldo Zuazori irakurri izan diogun moduan, Marteko berbak ahalik eta gutxien erabiltzea.

AZTERKETAK, ADIERAZLEAK... PROPIOAK EDO EZ, BAINA NEURGAILUAK

Ez gabilta ongi tokiko aldizkari, telebista, irrati zein webguneok egiten duguna ez badugu neurtzen, ez badiogu zenbakirik jartzen egiten dugunari, adierazleak ez baditugu finkatzen, ez badugu egunak joan ahala aurrera edo atzera egiten dihardugun jakiten. Gure lana ezin da amaitu aldizkaria buzoian utzita edo ordubeteko telebista saio bat emanda. Jakin behar dugu hartzaileak zer pentsatzen duen gutaz, ea zein den hartzailea, nora ari garen heltzen, zein den gure penetrazio-maila gure hartzaile potentzialen artean, ia publizitatean gora egiten dugun edo ez... Gure bezeroak (irakurleak, publizitatea jartzen dutenak...) aintzat hartutako produktuak egiten dihardugun edo ez jakin behar dugu. Kalitateaz mintzo garenean aldagai hauek ezinbestean izan behar ditugu buruan. Esan dut gure lana ez litzatekeela amaitu behar produktuak egin eta ematea hutsarekin, baina administrazioen lana? Administrazioen lana amaitzen al da dirua ematearekin? Administrazioak hedabideekin elkarlanean neurketa sistemak garatu beharko lituzke. Jakin beharko luke kontsumitzen den hedabide bati dirua ematen diharduen edo hedabide horiek ez duten kontsumitzaileen babesik. Edo akaso bezero gutxi izan arren ere diruz lagundu beharreko hainbat proiektu daude eta beharrezkoak direla arrazoi daiteke, baina jarri behar dira neurgailuak, derrigor.

Hedabideondako ere akuilu izango dira eta administrazioarendako lagungarri izan daitezke gu guztion diruak zelan kudeatu jakiteko.

Goienan CIESek neurtzen du telebistan egiten duguna eta egia esan oso neurketa zalantzatsua izan arren dagoen kanpo-neurketa bakarra da. Papelean OJDk ikuskatzen ditu gure aleak, irratian ere CIESein egin da neurketa eta Interneteko estatistikak bistan ditugu, edozeinek ikusteko moduan.

Kurioso da Internetekoa, esaterako. Administrazioak sarrerak neurtu behar zituela eta diruz laguntzen duen webguneetan kontadore negargarri bat jartzeko agindu du. Bueno, ez kontadore bat eta bakarra denok, bakoitzak gura duen kontadorea baino. Nork bere eratako kontadorea, bere eratan zenbakiak ematen dituena... Ez, ez da batere serioa. Diruz laguntzen diren webgune guztiek behar lukete kontatzeko modu bat eta bakarra. Horrek (ere) balioko luke neurgailu moduan eta banaketa efikazagoa litzatekeela dirudi. Neurgailu hori garapen propioa izan daiteke edo ez, baina lehen esan dugun moduan unibertsitateko irakasleak galga izan daitezkeela kazetarien formaziorako, edo hedabideotako zuzendari ez birziklatuokoin egin dezakeela topo kazetari berriak, ba funtzionarioak eta politikariak ere posizionatu beharko dira Internet existitzen den mundu honetan. Dagoeneko ez du balio esateak teknologia berriak direla Internetekin lotutako edozer. Teknologia hauek aspalditxo daude gurekin eta, inork zalantzarik balu, geratzeko etorri dira informazio atariak, blogak... Egiteko modu berriak.

Denok egiten ditugu gauzak ondo. Ez dago hedabiderik gaizki egiten duenik eta ez da egongo denok neurgailu bera erabili arte. Eta behin neurgailua aukeratuta ez da izango okerrago dabiltzanendako kalte, akuilu baino. Honek eskatzen du inbertsio bat, baina eginda egon behar lukeen inbertsio bat dirudi.

MERKATUA: TOKIRIK EZ TOKIKOEK?

Paperak, irratiak eta Internetek merkatura dutela ez da zalantzan jartzen eta telebistak ere merkatura duela ez dago zertan zalantzan jarri. Baditugu arrakasta adibideak eta baita nora begiratu ere.

Irakurri dugu inoiz tokiko telebistek ez daukatela merkaturik... Gezurra da. Tokiko telebistek badute merkatura eta tokiko telebistetan sinesten hasteko ordua ere heldu da. Euskara zabaltzeko hedabiderik indartsuena telebista dela aitortzen badugu, zelan ez dute bada lekurik izango tokikoez?

Ikusi besterik ez dago Katalunian zelako merkatura dagoen. 120 toki telebistatik gora daude, egon. Han ere, lizentziak banatu dituzte, 96 lizentzia, 24 barrutitan banatu dute-eta lurraldea. Merkaturik ez da ba egongo? Lizentzietatik 37 toki telebista publikoei banatu zaizkie eta 56 geratu dira esku pribatuetan.

Euskal Herrian gertatzen zaigunaren kontra, Katalunian harreman estua dute Katalunia esparru informatibo moduan duten telebistek eta tokiko telebistek. Eta zelako inbidiarekin begiratzen dugun tokiko telebistetan dihardugunok hango sareetara. Hiru dira:

- 1.- Xarxa TV (XTVL): Kataluniako Diputazioarena da.
- 2.- Comunalia: Girona, Tarragona eta Lleidako diputazioen esku.
- 3.- Canal Catalá TV SL: pribatua da.

- Xarxa TV bat bagenu Euskal Herrian programa poltsa bat izango genuke eta baita berri agentzia bat ere. Satellite bidez jasoko genituzke edukiak edo akaso begiratu beharko genuke konpresio sistema berriek zer ematen duten. Tokikook batera emango genituzke hainbat programa ordu jakinetan: kirolak, haur programazioa... Osagarri ona litzateke tokian tokiko informazioarako.

- Comunalia bat bagenu Euskal Herrian, produktora bat izango genuke tokiko telebistetarako edukia sortuko lukeena. Hilean 100 euro inguru ordainduta 15-20 orduko emisioa lortuko genuke, informazio agentzia moduan ere funtzionatuko luke...

- Canal Catalá bat bagenu Euskal Herrian, tokikoez osatutako sare pribatu bat izango genuke eta telebistak izango lirateke jabe. Publizitatea ere lortuko luke eta tokikook emisioa prime timean emango genuke. Batez ere Talk Showak (merkeenak eta ikusten direnak), reality-ak...

Eta hiruren nahasketa bat, edo bakoitzetik zati bat, edo sare indartsu bat, edo Euskal Telebista publikoa tokikoekin elkarlanean, edo... Buztanaren azken puntan baino gerturago geundeke burutik.

TOKIKOOK BAGARA ETA IZANGO GARA

Tokikook bagara, eta ez gara “inportanteagoak eta serioagoak” diren medioak irakurtzeko zubi lana egiten dugunak. Ez bakarrik, ze tokikoon jarduna helmuga moduan hartu behar genukeela iruditzen zait, errealitate eraginkor serio moduan. Tokikoon kontsumoa handia da, asko gara, herritarrek eskatzen dituzten produktuak dira, norbere produktu moduan ditu irakurle-entzule-ikusleak eta hori horrela den bitartean urte askotarako jarduna ziurtatuta dago. Badugu zer hobetu eta giltza izango dira: hurbiltasuna, askeak izatea, elkarlana eskualdeka eta Internet.■